

HELDUEN HITZA ELKARTEAREN ESTATUTUAK

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA

- 1. artikulua.-** 2003ko maiatzaren 5ean Donostiako (Gipuzkoa) AS/G/10437/2003 Erregistroan erregistratutako **HELDUEN HITZA ELKARTEAREN** estatutu hauek Euskadiko Elkartearen ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan ezarritakoa kontuan hartuta aldatu dira, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Elkartea honako hauek arautuko dute: elkarteei buruzko aipatutako legeek; Estatutu hauek, lege horiekin kontraesanik ez badute; elkartearen gobernu organoek balio osoz hartutako erabakiek, baldin eta ez badira Legearen edo/eta Estatutuen aurkakoak, eta Eusko Jaurlaritzak onartutako araudizko xedapenek (azken horiek izaera osagarria bakarrik izango dute).

HELBURUAK

- 2. artikulua.-** Honako hauek dira elkartearen helburuak: oro har zahartze aktiboa, osasungarria eta solidarioa bultzatzeko joera duten ekimenak abian jartzea eta gauzatzea; zehazki, adineko pertsonen banakako gaitasunak zein taldekoak ahal beste garatzea helburu duten ekimen guztiei ekitea eta horiek gauzatzea; eta haien bazterketa saihestea eta gizartean parte har dezaten laguntzea, eta, ondorioz, adinekoek gizartean betetzen duten zereginari balio handiagoa ematea.

Helburu horiek lortzeko, ezarritako lege betebeharrak bete ondoren, alor hauetan egituratutako jarduerak egingo dira:

Kulturaren alorra, non era honetako jarduerak egingo baitiren: musika, antzerkia, tailerrak, literatura tertuliak eta lehiaketak, hitzaldiak, eztabaidaguneak, bidaiak, irteera kulturalak, eta ikaskuntza, ideien trukea eta, oro har, pertsonen garapen intelektuala bultzatzeko haiekin zerikusia duten guztiak.

Zehazki, Euskararen ikaskuntza eta erabilera sustatzeko jarduerak egingo dira alor honetan.

Osasun Fisikoaren Prebentzioaren alorra, non antolatzen baitiren hainbat jarduera aire zabalean, esaterako mendi-ibiliak, mendizaletasuna, etab. pertsonen arteko harremanen esparruan osasun fisikoa sustatzen laguntzeko, naturarekin kontaktuan betiere.

Mendi-ibilietan parte hartzen duten guztiek federatuta egon behar dute eta Euskal Mendizale Federazioko aseguruia eduki, bai Helduen Hitzaren bitartez, bai beste Elkarte baten bitartez. Jarduera horren garapenari egoki erantzun ahal izateko, Helduen Hitzak "Helduen Hitza Mendi Elkarte" eratu du.

Garapen Pertsonal eta Emozionaleko Alorra, non antolatzen baitiren hainbat jarduera, esaterako hitzaldiak, tailerrak, boluntario lana... zenbait emoziori hobeto aurre egiteko estrategiak garatzen laguntzeko, arreta berezia jarritzak bakardadearen sentimenduaren ingurukoarekin.

Gizarte alorra eta Erakunde harremana, zeinaren bitartez Helduen Hitzak bultzatuko dituen:

- Elkarteko bazkideen arteko hartu-emana, ekimenen antolamendua sustatuz, komunikazio horren eragile bultzatzaile diren aldetik.
- Elkartearen jarduerak eta ekimenak zabaltzeko Komunikazio Bide egokiak.
- Beste Elkarte, Fundazio, Eragile Sozialekiko harremana, eta baita Herri Erakundeekikoa ere; eta adineko pertsonak garen aldetik ditugun arazoei aurre egiten lagunduko diguten sareak sortuko ditugu, esperientzien trukea eta proiektuen eta programen garapena bultzatzeko.

Gainera, Alor Emozionala eta Soziala zein Euskararen erabileraren normalkuntza zeharkako ardatz gisa sendotuko dira Helduen Hitzan antolatzen diren jardueretan.

Aurreko atalean deskribatutako jardueri kalterik egin gabe, Elkartek, bere helburuetara iristeko, honakoak egin ahal izango ditu:

- Edonolako jarduera ekonomikoak garatzea, elkarteren helburuak gauzatzeko edo helburu horretarako baliabideak biltzeko bideratuak.
- Era guztietako ondasunak eta edozein titulu erostea eta edukitzea, eta mota guztietako ekintzak eta kontratuak egitea.
- Era guztietako ekintzak egitea, Legeen edo elkarteren estatutuen arabekoak.

HELBIDE SOZIALA

3. artikulua.- Honako hau izango da elkarteren helbide nagusia: Aieteko pasealekua, 85. zkia., TOPALEKU eraikina, 20009 PK, Donostia.

Edonola ere, Elkartek beste lokal batzuk eduki ahal izango ditu Autonomia Erkidegoaren eremuan, Batzar Orokorrak horrela adosten badu.

LURRALDE EREMUA

4. artikulua.- Elkartek bere funtzioak betetzeko lurralde eremua Gipuzkoako herrialdea izango da, eta, horren barruan, Donostia eta Donostialdea bereziki.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua.- Elkartek izaera iraunkorra izango du, eta Batzar Nagusi Ezohikoak hala erabakitzen duenean baino ez da desegingo, VI. kapituluaren ezarritakoaren edo Legeetan aurreikusitako beste edozein arazoaren arabera.

Elkarteren barne antolaketa eta funtzionamendua demokratikoak izango dira eta erabat errespetatuko dute aniztasuna. Zuzenbidean erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarritzko eskubidearen ezein alderdi aintzat hartzen ez duten itunak, estatutuko xedapenak eta hitzarmenak.

BIGARREN KAPITULUA

GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANAK

6. artikulua.- Elkarteren gobernu eta administrazioa kide anitzeko organo hauen esku egongo da:

- Bazkideen Batzar Nagusia, organo gorena izango da.
- Zuzendaritza Batzordea, zuzendaritza iraunkorreko kide anitzeko organo gisa.

BATZAR NAGUSIA

7. artikulua.- Batzar Nagusia bazkide guztiek osatzen dute, eta haiek beren nahia adierazteko organoa da.

Batzar Nagusiaren eskumenak:

- a) Elkarteren jardueraren plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertzea eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.

- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkartea desagitea.
- f) Lehendakaria, idazkaria, diruzaina eta, halakorik balego, kide anitzeko organoaren gainerako kideak aukeratzea eta kargutik kentzea, eta organoa gainbegiratzea eta kontrolatzea.
- g) Beste elkarte batzuekin federazioak eta konfederazioak osatzea edo halakoetatik alde egitea.
- h) Ondasun higiezin jabetza edo besterentzea onartzea.
- i) Gobernu organoko kideen ordainsaria adostea, hala badagokio, bai karguari berari dagokion jarduera bai organo horretako kide gisa dagozkion funtzioez bestelako zerbitzuak eskain izana ordaintzeko.
- j) Ohiko eta ezohiko kuotak ezartzea. Nolanahi ere, eskumen hori gobernu organoaren esku utzi ahalko du Batzar Nagusiak, horretarako berariazko akordioaren bidez.
- k) Bazkideak behin betiko baztertze erabakia hartzea.
- l) Elkarteko beste organo bati esleitu ez zaion eskumen oro.

8. artikulua.- Batzar Nagusiak ohiko eta ezohiko bilerak egingo ditu.

9. artikulua.- Batzar orokorrerako deialdia ohiko bilkuran egin beharko da, urtean bi aldiz gutxienez. Ohiko Batzarrerako deialdia egingo da lehenengo lauhilekoaren barruan, 7^a-a), b), urteko kontuen azterketari eta onespenerari buruzko erabakiei heltzeko eta c).

Era berean, azken hiruhilekoan ohiko batzar baterako deialdia egin beharko da, 7.b) artikuluan aurreikusitako erabakiari ekiteko, hurrengo ekitaldiko aurrekontua onartzeari dagokionez.

10. artikulua.- Batzar Nagusiak ezohiko bilera egingo du Zuzendaritza Batzordeak hala erabakiz gero, bere ekimenez edo bazkideen herenak hala eskatuta, bileraren arrazoiak eta helburua adierazi beharko ditu. Edonola ere, ezohiko bilera egingo da informazioa eta erabakiak gai hauei buruzkoak badira:

- a) Estatutuen aldaketa.
- b) Elkartea desagitea.

11. artikulua.- Batzar Nagusiaren bileretarako deialdiak idatziz egingo dira, baita posta elektronikoz, Elkarrekin komunikazio modu hori erabiltzen duten pertsonekin, edo egiaztatu daitekeen beste edozein komunikazio modu erabilita ere, eta tokia, eguna eta ordua adierazi beharko da, baita eguneko gaien zerrenda ere, horien adierazpen zehatzarekin. Deialdiaren eta Batzarra egiteko lehenengo deialdirako adierazitako egunaren artean hamabost egun egon beharko dute. Egoki izanez gero, halaber, bigarren deialdiko bileraren data eta ordua ere adierazi ahalko dira, hala badagokio, eta bi deialdien artean ordu erdiko tarte utzi beharko da, gutxienez.

Batzar Nagusiaren ohiko nahiz ezohiko bilerak lehen deialdian behar bezala osatuta geratzeko, beharrezkoa izango da bozkatzeko eskubidea duten bazkideen herenak bertaratzea, eta, bigarren deialdian, edozein dela ere bozkatzeko eskubidea duten bazkideen kopurua.

12. artikulua.- Batzar Nagusiaren erabakiak bertaratuen edo ordezkatuak gehiengo sinplez hartuko dira, hau da, nahikoa izango da aldeko botoak kontrakoak baino gehiago izatea. Erabaki jakin batzuk hartzeko, berriz, beharrezkoa izango da bertaratuen edo ordezkatuak gehiengo kalifikatua, hau da, aldeko botoak balio osoz emandako botoen erdiak baino gehiago izatea. Hauek dira gehiengo kalifikatua behar duten erabakiak:

- a) Elkartea desagitea.
- b) Estatutuak aldatzea.
- c) Ondasunak edukitzea edo besterentzea.
- d) Ordezkaritza organoko kideen ordainsaria.

13. artikulua.- Batzar Nagusiaren bileretan parte hartzeko, bazkideek beste edozein bazkideren esku utzi ahalko dute beren ordezkaritza. Ordezkaritza hori idatziz aitortuko da, eta Batzarraren idazkariaren eskuetan egon beharko du gutxienez bilera baino 24 ordu lehenago. Elkarrekin egoitza sozialari dagokion hiria ez den beste batean bizi diren bazkideek postaz igorri ahalko dute ordezkaritza aitortzen duen dokumentua.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

14. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea ordezkaritza organo bat da, eta Elkartearen interesak kudeatzen eta ordezkatzeko ditu, Batzar Nagusiaren xedapenen eta zuzentzaruen arabera. Bazkideak bakarrik izan daitezke ordezkaritza organoko kideak.

Zuzendaritza Batzordea Lehendakariak, Lehendakariordeak, idazkariak, diruzainak eta Elkarteko jarduerak koordinatzen dituzten batzordeen ordezkari gisa, une horretan erakundearen egituraren arabera, gutxienez lau eta gehienez zortzi batzordekidek osatuko dute.

Gutxienez hiru hilean behin elkartu beharko dute, eta elkarteko jarduerak behar bezala garatzeko beharrezkoa den guztietan.

15. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide batek hiru aldiz jarraian edo jarraian izan gabe sei aldiz arrazoi justifikaturik gabe huts egiten badu aipatutako bileretan, dagokion kargua utzi beharko du.

16. artikulua.- Batzar Nagusiak bi urterako aukeratuko ditu Zuzendaritza Batzordea osatzen duten karguak, Batzarrak berariaz behar baino lehenago baliogabetzea eskatu ezean. Edonola ere, karguan ez da lau urtez baino gehiagoz egongo.

17. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, ezinbestean bete beharko dira baldintza hauek:

- a) Adinez nagusia izatea, eskubide zibilak erabiltzeko moduan egotea eta indarrean den legedian ezarritako bateraezintasunik ez edukitzea.
- b) Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- c) Elkarteko bazkidea izatea.

18. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide kargua Batzar Nagusiak izendatu ostean edo kargua hartu ondoren onartuko da.

Batzar Nagusiak Zuzendaritza Batzordeko kideei dietak eta gastuak ordaintzea adostu ahalko du.

19. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek kasu hauetan utziko dute kargua:

- a) Agintaldia amaituz gero.
- b) Dimisioa emanez gero.
- c) Bazkide izateari utziz gero edo ezintasunen bat suertatuz gero.
- d) Batzar Nagusiak baliogabetuz gero, Estatutuen 16. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuta.
- e) Hilez gero.

Kargu uztea a) atalean aurreikusitako kasuaren ondorioz gertatzen bada, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute Batzar Nagusiaren lehen bilera egin arte. Bilera horretan aukeratuko dira karguak betetzeko kide berriak.

b), c), d) eta e) ataleko kasuetan, berriz, Zuzendaritza Batzordeak berak beteko du hutsik geratutako postua, behin-behineko izendapenaren bidez. Izendapen hori Batzar Nagusiaren hurrengo ohiko bileran berretsi edo baliogabetu beharko da, eta, baliogabetuz gero, dagokion izendapena egin beharko da.

Organo horren osaeran gertatzen den aldaketa oro Elkarteen Erregistroari jakinaraziko zaio.

20. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak dira:

- a) Elkartearen ohiko kudeaketa zuzentzea, Batzar Nagusiaren zuzentzaruen arabera eta haren kontrolpean.
- b) Elkarrekin garatu beharreko jarduerak programatzea.
- c) Batzar Nagusiari urteko gastuen eta diru sarreraren aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera aurkeztea, onar ditzan.

- d) Batzar Nagusiaren bileretako aztergaien zerrenda prestatzea, eta Batzar Nagusiaren ohiko eta ezohiko bileren deialdia erabakitzea.
- e) Bazkideek aurkeztutako proposamenei eta iradokizunei erantzutea, horretarako neurriak hartuta.
- f) Estatutu hauetan jasotako aginduak interpretatzea eta hutsuneak betetzea, elkarteei buruz indarrean dagoen legezko araudiarekin bat etorrita betiere.
- g) Batzar Nagusiak berariazko erabakiz emandako eskumenak erabiltzea, baldin eta ez badira haren eskumen eskusiboak.

21. artikulua.- Lehendakariak bere ekimenez edo batzordekide batek eskatuta deialdia egiten duen guztietan bilduko da Zuzendaritza Batzordea. Lehendakaria izango da batzordeburua, eta, hura ez badago, lehendakariordea; bi horiek falta badira, batzordekide adintsuenak jardungo du zeregin horretan.

Batzordearen erabakiak baliodunak izateko, bertaratuen botoen gehiengoz hartu beharko dira erabaki horiek, eta beharrezkoa izango da batzordekideen erdia bertan izatea. Berdinketa izanez gero, lehendakariak izango du kalitateko botoa.

Idazkariak bileren akta jasoko du, eta dagokion Liburuan transkribatuko du.

KIDE BAKARREKO ORGANOAK

LEHENDAKARIA

22. artikulua.- Elkartearen lehendakariak bere gain hartuko du Elkartearen legezko ordezkaritza, eta Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Nagusiaren erabakiak betearaziko ditu. Bera izango da bi organo horien burua.

23. artikulua.- Hauek izango dira lehendakariaren eskumenak:

- a) Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Nagusiaren bilerak deitzea eta amaitutzat ematea, organo baten zein bestearen deliberazioak bideratzea eta kalitateko botoaz erabakitzea, bozketetan berdinketa izanez gero.
- b) Zuzendaritza Batzordeari Elkartearen jardura plana proposatzea, haren zereginak bultzatuta eta zuzenduta.
- c) Behar bezala adostutako ordainketak agintzea.
- d) Premiazko izaera duten gorabeherak ebaztea, Zuzendaritza Batzordea jakinaren gainean jarri eta hurrengo bileran.
- e) Batzar Nagusiak berariazko erabakiz emandako eskumenak erabiltzea, baldin eta ez badira haren eskumen eskusiboak.

LEHENDAKARIORDEA

24. artikulua.- Lehendakariordearen eginkizuna izango da lehendakariari laguntzea eta haren ordezkari gisa jardutea, hark aldi batez ezin badu kargua bete. Halaber, lehendakariak berariaz bere esku utzitako eskumen oro hartuko du beregain.

IDAZKARIA

25. artikulua.- Idazkariaren zeregin zehatza izango da Elkarteko kide izateko eskaerak jasotzea eta izapidetzea, fitxategiaz eta Bazkideen Erregistro Liburuaz arduratzea eta Akten Liburua zaintzea nahiz idaztea.

Era berean, elkarteei buruz indarrean dauden legezko xedapenak betetzen direla bermatuko du, Elkartearen dokumentazio ofiziala zainduz, Elkarteko Liburu eta artxiboen edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordearen izendapenaren eta helbide sozialaren aldaketen gaineko jakinarazpenak

DIRUZAINA

- 26. artikulua.-** Diruzainak ezagutzera emango ditu diru sarrerak eta ordainketak, sarreraren eta gastuen urteko aurrekontua formalizatuko du, eta baita aurreko urteko kontuen egoera ere; Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko dio, hark, aldi berean, Batzar Nagusiari aurkezteko, onar ditzan.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: BAZKIDEAK ONARTZEKO BALDINTZAK ETA PROZEDURAK ETA BAZKIDE MOTAK.

- 27. artikulua.-** Elkarteko kide izan daitezke hala nahi izanik baldintza hauek betetzen dituzten pertsona guztiak:

- 55 urtetik gorakoa izatea eta ez edukitzea ahalmena mugatuta ebazpen judizial irmo baten arabera.
- Batzarrak zehaztu eta onartutako moduan laguntzea diruz. Ez da bazkide izango kuotaren zenbatekoa ordaintzen ez den bitartean.

Elkartearen barruan, honako bazkide klase hauek egongo dira:

- a) Ohorezko bazkideak, beren ospeagatik edo Elkartearen jardunari modu aipagarrian lagundu diotelako izendapen hori merezi dutenak. Batzar Nagusiari dagokio ohorezko bazkideen izendapena, Zuzendaritza Batzordearen proposamenez.
- b) Bazkide laguntzaile izango dira Elkarteari eta elkartearen helburuak betetzeari diruz laguntzen dioten pertsonak edo erakunde juridikoak.

- 28. artikulua.-** Elkarteko kide izan nahi dutenek eskaera bete beharko dute, eta Bazkideari Arreta Emateko Bulegoak izapidetu ondoren, berehala izango du eragina. Horretarako, Elkartearen web orrian Arlo Pribatura sartzeko eta nahi dituen jardueretan eta plaza eskuragarri dagoenean izena eman ahal izateko gakoa jaso beharko dute posta elektronikoan. Izandako alden berri emango zaio Zuzendaritza Batzordeari, eta honek onarpena ezeztatu ahal izango du. Erabaki horren aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Batzar Nagusiari.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

- 29. artikulua.-** Bazkideen eskubideak:

- 1) Elkarteen Legearen edo Estatutuen aurkako erabaki eta ekintzak aurkaratzea. Horretarako, bazkideek berrogei egun naturaleko epea izango dute, aurkaratutako erabakiaren edukia ezagutu dutenetik edo ezagutzeko aukera izan dutenetik zenbatzen hasita.
- 2) Elkarteko gobernu eta ordezkaritza organoen osaerari, kontuen egoerari eta jardunaren garapenari buruzko informazioa jasotzea.
- 3) Edozein unetan ezagutzea Elkarteko gainerako kideen identitatea, sarreraren eta gastuen kontuen egoera eta Elkartearen jardunaren garapena, datu pertsonalak babesteko araudian aurreikusitako baldintzen arabera, betiere.
- 4) Batzar Nagusiaren bileretarako deialdia jasotzea, baita horietan parte hartzea eta hitz egin nahiz bozkatzeko eskubidea erabiltzea ere. Eskubide hori gauzatzeko, beste bazkide batzuen esku utz dezakete beren ordezkaritza.
- 5) Estatutuetan ezarritakoaren arabera, Elkarteko zuzendaritza organoetan parte hartzea, hautesle eta hautagarri gisa.
- 6) Indarreko legedian aurreikusitako Bazkideen Fitxategian agertzea, eta Elkartearen ikurra

erabiltzea, halakorik izanez gero.

- 7) Estatutuen eta Barne Araudiaren kopia bat edukitzea, halakorik balego, eta eskaerak eta kexak gobernu organoen aurrean aurkeztea.
- 8) Elkarteko ekintza kolektiboetan parte hartzea, eta bazkide guztiek erabil ditzaketen elementuak erabiltzea (elkarteko lokala, liburutegiak, etab.).
- 9) Diziplinazko neurriak hartu aurretik iritzia idatziz adierazi ahal izatea, eta horrelako neurrien arrazoiak berri jasotzea. Horrelako neurriek bazkide betebeharrak ez betetzea bakarrik izan dezakete oinarritzat.
- 10) Edozein unetan baja ematea. Horrek ez du eraginik izango onartuta izanik bete gabe dituzten konpromisoak dagokionez.

30. artikulua.- Bazkideen betebeharrak:

- a) Elkarrearen helburuekin bat etortzea eta horiek lortzen laguntzea.
- b) Kuotak, derramak eta Estatutuen arabera bazkideei egotz dakizkiekeen bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c) Estatutuetan ezarritako gainerako betebeharrak betetzea.
- d) Elkarteko gobernu organoek behar bezala hartutako erabakiak onartzea eta betetzea.

BAZKIDE IZATEARI UZTEA

31. artikulua.- Bazkide izateari uzteko arrazoiak:

1. Hiltzea.
2. Nork bere borondatez Elkartea uztea.
3. Zigorragatik Elkartetik kanporatzea, egoera hauetakoren bat gertatuz gero: Estatutu hauek eta Batzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeak balio osoz hartutako erabakiek dakartzaten betebeharrak larriki, behin eta berriz eta nahita urratzea.

ZIGOR ERREGIMENA

32. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak zigortu egin ahalko ditu bazkideak, Estatutuak edo Batzar Nagusiak zein Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak behin eta berriz urratzeagatik.

Zigorak 15 egun eta hilabete bitarte eskubideak bertan behera gelditzea izan daiteke, baita Elkartetik behin betiko kanporatzea ere, hurrengo artikuluetan aurreikusitako baldintzetan.

Zigorra ezartzeko, Lehendakariak ikerketa bat abiaraztea erabaki ahalko du, jokabide zigorgarriak argitzeko. Izapideak Idazkaritzak gauzatuko ditu, organo bideratzaile gisa, eta horrek proposatuko dizkio Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurri egokiak.

Zigorak ezartzeko eskumena Zuzendaritza Batzordearena izango da, idazkaria kanpo utzita (organo bideratzailea delako), eta, zigorra ezarri aurretik, interesdunak esan beharrekoa entzun beharko du. Erabaki horrek arrazoituta egon beharko du, eta Batzar Nagusiaren aurrean errekurtsioa aurkezteko aukera izango da.

33. artikulua.- Estatutuek edo Batzar Nagusiak zein Zuzendaritza Batzordeak balio osoz hartutako erabakiek dakartzaten betebeharrak larriki, behin eta berriz eta nahita urratzeagatik bazkide bat Elkartetik kanporatzeko ustezko arrazoiak izanez gero, aurretiko izapide batzuk gauzatzeko agindu ahalko dio Lehendakariak Idazkaritzari, informazio egokia biltzearen. Informazio hori aztertuta, Lehendakariak jarduketak artxibatzea aginduko du, edo kanporatzeko espediente zigortzailea irekiko du.

34. artikulua.- Bazkidea kanporatzeko espediente zigortzailea irekiz gero, Idazkariak, aldez aurretik gertaerak egiaztatu ostean, interesdunari idatzi bat igorriko dio, egozten zaizkion karguen berri emateko. Interesdunak kargu horiei erantzuteko aukera izango du, bere burua defendatzeko egoki irizten diona argudiatuta. Hamabost eguneko epea izango du horretarako, eta, epe hori amaitzean, edonola ere, gaia Zuzendaritza Batzordearen hurrengo ohiko bilerako aztergaien zerrendan sartuko da. Zuzendaritza Batzordeak dagokiona erabakiko du, idazkariak botorik eman gabe betiere, espedientearen bideratzaile gisa jardun duelako.

Interesdunari kanporatzeko erabakiaren berri emango zaio, eta jakinaraziko zaio haren aurkako helegitea aurkez dezakeela Batzar Nagusiaren hurrengo ezohiko bileran. Hiru hilabeteren buruan ez bada ezohiko bilerarik deitzen, gai hori aztertzeko berariazko bilera bat egin beharko da. Bien bitartean, Zuzendaritza Batzordeak erabaki dezake errudunari bazkide eskubideak kentzea, eta, Zuzendaritza Batzordeko kide izanez gero, karguaren jarduna bertan behera uzteko aginduko dio.

Batzar Nagusiari kanporatzeko espedientearen aurkako helegitea aurkeztuz gero, idazkariak espedientearen laburpen bat prestatuko du, Zuzendaritza Batzordeak akusatuak aurkeztutako idatziaren berri eman diezaion Batzar Nagusiari, eta behar bezala eman dezan gertaeren berri, Batzarrek dagokion erabakia hartu ahal izateko.

35. artikulua.- Kanporatzeko erabakiak arrazoituta egon beharko du, eta interesdunari jakinarazi beharko zaio. Erabakia Legearen edo Estatutuen aurkakoa dela iruditzen bazaio, interesdunak Auzitegietara jo ahalko du, dagokion eskubidea erabiliz.

36. artikulua.- Bazkide bati bere borondatez edo zigor baten ondorioz Elkartetik kanpo geratuko dela jakinaraztean, Elkartearekin bete gabe dituen betebeharrak betetzeko eskatuko zaio, hala badagokio.

LAUGARREN KAPITULUA

SORTZE ONDAREA ETA AURREKONTUEN ERREGIMENA

37. artikulua.- Elkartearen hasierako ondarea 0 eurokoa da.

38. artikulua.- Elkarreak bere jarduerak garatzeko aurreikusi dituen baliabide ekonomikoak honako hauek dira:

- a) Sarrera kuotak.
- b) Adostutako aldizkako kuotak.
- c) Dagozkion ondasun eta eskubideen emaitzak eta legeaz jaso ditzakeen laguntzak, legatuak eta donazioak.
- d) Zuzendaritza Batzordeak Estatutuetako helburuak lortzearren ados ditzakeen legeazko jardueren bidez jasotako diru sarrerak.

Elkartearen ekitaldia eta ekitaldi ekonomikoa urtebetekoa izango da, eta urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da.

Jarduera ekonomikoak gauzatuz (zerbitzuak ematea barne) Elkarreak irabaziaz lortzen baditu, bere helburuak betetzeko bakarrik erabiliko ditu. Ez dira inolaz ere bazkideen artean banatuko, ezta haien ezkontideen edo haiekin antzeko afektibitate harremanean bizi diren pertsonen artean eta haien senideen artean ere, eta ezingo zaizkie doan laga irabazi asmoak dituzten pertsona fisiko edo juridikoei.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

39. artikulua.- Estatutuen aldaketa Batzar Nagusiak berariaz helburu horretarako deitutako ezohiko bilera batean adostu beharko da. Edonola ere, Zuzendaritza Batzordeak batzorde txostengile bat izendatuko du, hiru bazkidek osatua, aldaketa proiektua idazteko, Zuzendaritza Batzordeak emandako jarraibideak erabilita. Zuzendaritza Batzordeak zehaztuko du zer epetan egon beharko duen bukatutako proiektuak.

40. artikulua.- Aldaketa proiektua zehaztutako epean idatzi ostean, lehendakariak Zuzendaritza Batzordeko hurrengo bileraren gai zerrendan sartuko du, eta Batzordeak onartu egingo du, edo batzorde txostengileari bueltan bidaliko dio, berrazter dezan.

Proiektua onartuz gero, Zuzendaritza Batzordeak Batzar Nagusiaren hurrengo bileraren gai zerrendan sartzea erabakiko du, edo helburu horretarako bilera bat deitzea adostuko du.

41. artikulua.- Batzar Nagusiaren bilera deialdiari Estatutuak aldatzeko testua erantsiko zaio, edo, hala badagokio, Elkartearen webgunean argitaratuko da, bazkideek aukera izan dezaten Idazkaritzan egoki deritzen zuzenketak aurkezteko. Batzar Nagusiari zuzenketa horien berri emango zaio, baldin eta Idazkaritzaren esku badaude bilera eguna baino zortzi egun lehenago.

Zuzenketak bakarka edo taldeka egin ahalko dira, idatziz aurkeztuko dira eta testu alternatibo bat proposatuko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Nagusiak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du. Erabaki horrek Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatu ostean bakarrik izango du eragina hirugarrenen aurrean

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ONDARE SOZIALA APLIKATZEA

42. artikulua.- Elkartea kasu hauetan desegingo da:

1. Bazkideek hala nahi dutelako, berariaz horretarako deitutako Batzar Nagusiaren ezohiko bilera batean nahi hori adierazita.
2. Estatutuetan zehaztutako epea edo baldintza bete delako.
3. Beste elkarte batzuk bereganatu direlako edo beste batzuekin elkartu direlako.
4. Legez ezarritako gutxieneko bazkide kopurua betetzen ez delako.
5. Desegitea agintzen duen epai judizial irmoa dagoelako.
6. Desegitea agintzen duen epai judizial irmoa dagoelako.

43. artikulua.- Elkartea deseginez gero, desegitea adosteko deitutako Batzar Nagusiaren ezohiko bilera Batzorde Likidatzailea izendatuko da. Batzorde hori Zuzendaritza Batzordeko hiru kidek osatuko dute, eta Elkarreak dituen funtsez arduratuko da.

Bazkideei eta hirugarrenei begirako betebeharrak sozialak ase ostean ondare sozialik geratzen bada soberan, irabazi asmorik gabeko entitate bati emango zaio edo irabazi asmorik gabeko helburuetara bideratuko da.

AZKEN XEDAPENA

Batzar Nagusiak Barne Erregimeneko Araudi bat onartu ahalko du, Estatutu hauek garatzeko. Dokumentu horrek ez ditu inolaz ere aldatuko Estatutuetan jasotako aginduak.